



Arartekoaren ebazpena, 2011ko uztailaren 22koa. Horren bidez, Musikeneko ikasleen eskubide eta betebeharren araudiari buruzko jarduera amaitzen da.

Aurrekariak

1. Erakunde honetan kexa-idazki bat jaso zen. Bertan zalantza batzuk agertu ziren Musikeneko ikasleen eskubide eta betebeharren araudiko xedapen jakin batzuen jatorriari buruz.

Hasieran, eta kexa honen inguruan esku hartzeko aukerak aztertu ondoren, erakunde honek iradoki zien interesatuei lehenago Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailari eskatu behar lioketela iritzia euren zalantzei buruz, horrela egiazko ebazpen bat izateko eta goi-mailako musika zentro horren barne araudi horri dagokionez balizko kontrol lanak hari jo ahal izateko; interesatuek kasu egin zioten iradokizunari.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailak, ordea, isilik iraun zuen interesatu horiek aurkeztutako eskaeraren aurrean. Hori dela-eta, azkenean jarduketari ekin eta Musikeneko ikasleen eskubide eta betebeharren araudiko zenbait xedapen azaldu eta oinarritzeko txostena egiteko eskatu genuen. Zehazki, honakoak ziren: (1) kanpora begira Musikeneren irudia eta izen ona larriki kaltetzen dituzten jokabideak hutsegite oso larritzat tipifikatzea (10.4 artikulua) eta (2) Araudian aurreikusitako hutsegiteren bat lekarkeen gertaeraren baten berri daukan edonork Musikeneren zuzendaritza batzordeari jakinarazteko dauzkan eskubidea eta betebeharra. (14. artikulua).

2. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Saileko Ikasketen eta Araubide juridikoaren zuzendariak emandako erantzunean, Musikeneren patronatuaren idazkaria zen aldetik, honakoa adierazi zion erakunde honi:

“MUSIKENE goi-mailako musika ikastegia arlo publikoko fundazio pribatu bidez kudeatzen dela, eta bertan unibertsitatez kanpoko musikako goi-mailako ikasketak ematen direla. Ikasketa horiei ondoren aipatuko ditugunetan adierazitako araubide juridikoa aplikatuko zaie: Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren irakaskuntza artistikoari buruzko I. tituluko VI kapituluan, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan araututako irakaskuntza artistikoak ematen dituzten ikastetxeentzako gutxieneko baldintzak ezartzen dituen martxoaren 15eko 303/2010 Errege Dekretuan, eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako Musikako gradu goi-mailako arte-ikasketetarako oinarritzko edukia arautzen duen maiatzaren 14ko 631/2010 Errege Dekretuan xedatutakoa.



Ikastegi hori sortu zenetik -aipatutako fundazioa 2001eko ekainaren 7ko eskritura bidez eratu zen- ez zirela bere funtzionamendua behar bezala kudeatzeko behar ziren barruko hainbat Agindu, Erregelamendu eta araudi idatzi, eman eta onartu. Horregatik, 2009ko urriaren 5eko bileran Patronatua eta berarekin Ikastegiko zuzendaritza-taldea berritu ondoren, beste hainbat gauzaren artean Ikastegiaren kudeaketa eta administrazioa arautzeko beharra aztertu zen, ez bakarrik ikuspegi akademikotik - ikasketaplanak goi-mailako hezkuntzaren Europako esparrura egokitzeko beharrari erantzunez-, baita langile akademikoen eta ikasleen erregimenen ikuspuntutik ere.

Erregularizatzeko behar hori sortuta, eta Patronatuan bertan eztabaidatu ondoren, Koordinatzaile Nagusiak eta bere ekipoak hainbat alderdi aztertu zituzten. Beste hainbaten artean, Ikasleen Araudi Orokorrak eta Diziplina Prozedurako Barne Araudiak izenekoei lotuta Unibertsitate Pribatuaren esparruan aurki daitezkeen adibideak aztertu zituzten. Ikasleen eskubideak eta betebeharrak biltzen dituzten barne erregulazioko tresnak, eta hauei dagokien diziplina-erregimena, eta hori guztia bere izaera bikoitza kontuan hartuta: zerbitzu akademikoa eskaintzen zaien administratu gisa, batetik, eta matrikulako kontratu pribatuaren beste alde gisa, bestetik. Bi kasu horietan eskubideak eta obligazioak dituzte.

Araudi horietan guztietan aurki daitezkeela Unibertsitateen eta/edo Ikastegiaren helburu eta zereginak betetzearekin, eta Unibertsitateko eta/edo Ikastegiko baliabide eta instalazioak erabiltzeko eginbideekin lotutako betebeharrari buruzko erreferentziak. Era horretan, ondasun materialez gain jada aipatu ditugun helburu eta zeregin horiek bezalako inmaterialak ere begiraturaz. Hala, Ikastegiaren eta/edo Unibertsitatearen eguneroko bilakaeran Ikastegiko kide guztiak -administrazioko eta zerbitzuetako langileak, irakasleak, zuzendaritza-taldea eta ikasleak- errespetatzeko, eta bizikidetzako esparru orokorra osatzen duten eskubide eta zereginen aurkako jokabidea gaitzesteko beharra islatuko da.”

3. Argibide horien ondoren egindako azterlanean, erakunde honek zenbait hausnarketa egin zituen Musikene goi-mailako musika zentroaren barne arautegi horri buruz. Haiei helduko diegu berriz ebazpen honetako oharbideetan. Horregatik, eta errepikakorrak ez izateko, orain honakoak baino ez ditugu azpimarratuko: azterlan horrek gomendio oso zehatza proposatu zuen Musikeneko ikasleen eskubide eta betebeharren araudiko 14. artikulua dakarren salatzeke betebeharra kentzeari buruz eta, aldi berean, beste gomendio orokorragoa egin zuen, Araudiko 10.4 artikulua ez ezik, Musikeneko ikasleen eskubide eta betebeharren barne araudi osoa ere berridaztea aintzat hartzeari buruz.



4. Beste erantzun batean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Saileko Ikasketen eta Araubide juridikoaren zuzendariak honakoa adierazi zuen berriro:

“...sortu zenean MUSIKENE ikastegi pribatuen esparrura mugatu zen, Ikastegi horien deskribapena irakaskuntza artistikoen ikastegietarako gaur egun indarrean dagoen araudian egiten da. Funtsean, unibertsitatez kanpoko zein unibertsitateko hezkuntzaren esparruan Ikastegi Publiko eta Pribatuen arteko bereizketarekiko araudi organikoak jada zehaztutako ezaugarriak ditu.

Horren haritik, eta aurreko jakinarazpenean adierazi zen moduan, MUSIKENEK ikastegi pribatu gisa kudeatzeko, antolatzeko eta funtzionatzeko dituen eskuduntzen esparruan, egokiak eta aproposak iruditu zaizkion barneko instrukzio, araudi eta arauak ezarri ditu. Beste hainbaten artean, "MUSIKENeko ikasleen Eskubide eta Betebeharren Araudia" ezarri du. Funtsean, araudi hori bat dator Unibertsitateko Ikaslearen Estatutua onartzen duen abenduaren 30eko 1791/2010 Errege Dekretua edo Euskadiko Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastegietako ikasleen esku bide eta betebeharrei buruzko a benduaren 2ko 201/2008 Dekretua bezalako xedapenean jada ezarritako arauzko edukiekin. Era berean, ARARTEKOari erantzuteko gure lehen dokumentuan adierazi genuen moduan, Comillaseko Universidad Pontificia, Zaragozako Universidad de San Jorge, Madrilgo Universidad Europea eta Universidad Antonio de Nebrija bezalako unibertsitatetako araudiak hartu genituen kontuan.

Beraz, MUSIKENE Ikastegiaren iritziz, fundazioaren Patronatuak onartutako Araudi hori ezartzean zuzen eta modu egokian jardun duela, indarrean dagoen araudiaren arabera eskuratu dituen eskuduntza eta eskubideetara mugatuta.

Era berean, konpromisoa adierazi zuen Musikeneren patronatuaren hurrengo erabaki baten bidez Ikasleen eskubide eta betebeharren araudiko 14. artikuluan jasotako salatzeko betebeharra kentzeko.

Gogoetak

1. Espedientea izapidetu bitartean Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Saileko Ikasketen eta Araubide juridikoaren zuzendariak, Musikeneren patronatuaren idazkaria den aldetik, igorritako erantzunetan, arduradun horrek kontu handia izan du goi-mailako musika zentro hori kudeatzeko erabiltzen den formula juridikoa azpimarratzeko (sektore publikoko fundazio pribatua), horrela egoki eta komenigarritzat jo diren barneko jarraibideak, araudiak eta arauak onartu izana zurrizteko.



Horri dagokionez, eta lehenago adierazi dugunez, arduradun horrek honakoa berretsi du Musikeneri buruz: *sortu zenean, zentro pribatuen esparrura mugatu zen; haren deskribapena egun irakaskuntza artistikoetako zentroentzat indarrean dagoen araudian egiten da, baina, funtsean, egiten duen bakarra unibertsitateaz kanpoko zein unibertsitateko hezkuntza esparruko zentro publiko eta pribatuen arteko bereizketari buruzko arautegi organikoak berak xedatutako ezaugarriak errepikatzea da.*

Jakina da EAEko administrazio orokorrak bere garaian fundazio pribatua eratzea erabaki zuela, Euskadiko Goi-mailako Musika Zentroa kudeatzeko, horrek haren araubide juridikoari dakartzan berezitasun eta ezaugarriekin. (Euskadiko Fundazioen 12/1994 Legea, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen bidez aldatua).

Hala ere, gogoan hartu behar da pertsonifikazio mota hori tresnatzat erabiltzea antolakuntza eta kudeaketa alderdietara mugatzen dela. Zentzu horretan, ezin zitekeen bestela izan, zentro horren sorrerako estatutuek eurek onartzen dute goi-mailako irakaskuntza artistiko arautuak irakasten dituen ikastetxe bezala dagoela hezkuntza araudiari lotuta. Horrela, estatutu horietako 5. artikulua arabera:

“Para el desarrollo de los objetivos fundacionales la Fundación tendrá encomendadas las funciones siguientes:

a) Crear el Centro Superior de Música del País Vasco, que se regirá por la Ley Orgánica 8/1985, de 3 de julio, reguladora del Derecho a la Educación, por la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo, por las normas que la desarrollan y complementan, por la normativa que sea de aplicación y por las propias normas de organización y funcionamiento. El Centro ha de impartir las enseñanzas para la obtención del grado superior de música de acuerdo con el currículum que establezca el Gobierno Vasco y según el calendario de implantación de las referidas enseñanzas. El precio de la matrícula se establecerá con referencia a los precios establecidos para la prestación de servicios académicos universitarios.”

2. Hezkuntza araudiaren barruan, hain zuzen ere, EAEko esparruan, ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko arauketa daukagu (abendua 2ko 201/2008 Dekretua), eta haren aplikazio esparrua EAEn funts publikoen bidez osorik edo zati batean sustengatzen diren unibertsitateaz kanpoko ikastetxe guztietara zabaltzen da (1.2 artikulua).

Esan behar da Musikene musikako goi-mailako irakaskuntza artistikoak irakasten dituela eta haiek ez direla unibertsitateko irakaskuntzat jotzen.



EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko arauketa horren irismenaz pentsatzerakoan -azken finean, Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legeko 15. artikuluan xedatutako agindua betetzen du-, pentsatu dugu argigarria litzatekeela bere garaian Euskadiko Aholkularitza Juridikoko Batzordeak egindako 197/2008 irizpenera jotzea.

Irizpen horrek proiektuaren azterketa juridikoa egin eta Estatuak lehenago ezarritako lege esparruarekin bat datorrela adierazi du (39 eta 41. idatz-zatiak). Horri dagokionez, honakoa adierazi du argi eta garbi: *"al versar el proyecto sobre el catálogo de derechos y deberes de los alumnos y alumnas de los centros docentes no universitarios de la CAPV, conecta con el artículo 27 CE y las leyes orgánicas que lo han desarrollado, concretamente, con la Ley Orgánica 8/1985, de 3 de julio, reguladora del Derecho a la Educación (en adelante LODE), que ha sufrido en los últimos años diversas reformas (leyes orgánicas 10/2002, de 23 de diciembre; 1/2004, de 28 de diciembre) siendo la última la operada por la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación"* (apdo 36) y *"que por su especial relevancia para la iniciativa, debe destacarse que los artículo 6, 7 y 8 LODE encierran el núcleo de esencialidad de los derechos y deberes básicos de los alumnos y alumnas de los centros docentes no universitarios, de acuerdo con el principio de reserva de ley que deriva de los artículos 81.1 y 53.1 CE y son parámetro esencial para el enjuiciamiento de la iniciativa en los términos delimitados por la doctrina constitucional (por todas, SSTC 5/1981, 137/1986 y 173/1998)"* (38.idatz zatia).

Beraz, arauketak hezkuntzarako eskubideari buruzko oinarritzako eta funtsezko arauak lotu eta garatzen ditu. Musikene sortzeko estatutuek haietara berariaz jotzen duenez, ulertzen dugu nekez saihets ditzakeela.

Egia da abenduaren 2ko 201/2008 Dekretu horretako bigarren xedapen gehigarriak bere edukia adin nagusiko ikasleak dituen ikastetxeetara egokitzeko aukera jasotzen duela, eta halakoak direla arte irakaskuntzako goi-mailako zikloak ematen dituzten zentroak. Hala ere, konturatu behar da egokitzeko aukera hori neurri zuzentzaileak aplikatzeko prozedurara mugatzen dela eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailari dagokiola, baina ez Musikeneri.

3. Bestalde, egia da EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretu horrek berak, II. kapituluan jokabide desegokiak, elkarbizitzaren aurkakoak eta hura larriki kaltetzen dituztenak aipatzen dituenean, zentroen eskuetan uzten duela euren antolakuntza eta funtzionamenduko arautegietan edo barne-arautegietan jokabide mota horretako beste adibide batzuk zehazteko aukera. Horren ondorioz, Musikenek, aukera hori erabiliz, bere barne ordenamendu edo arautegian desegokitzen, elkarbizitzaren aurkakotzat eta harentzako oso kaltegarritzat jotzen dituen beste jokabide batzuk zehaztea erabaki dezake.



Horri dagokionez, geuk ere pentsatu dugu argigarria izan zitekeela aipatu dugun Aholkularitza Juridikoko Batzordearen irizpenera jotzea, gure ustez zeregin horri heldzerakoan oharkabean pasatzerik ez daukaten hausnarketa eta oharpen batzuk dauzkalako.

Horrela, irizpen horren gogorarazten du jokabideen eta neurri zuzentzaileen deskribapenak ezin dituela eskubideak murriztu ez betebeharrak oker zabaldu, eta legearen edukia zehaztera mugatu behar duela, diziplina araubidea zuzentzen duen xedea aintzat hartuta: ikastetxeetan elkarbizitza zaindu eta bermatzea (51. idatz-zatia). Bestela esanda, jokabide berriak zehaztu daitezke betebeharrak ez betetzean dautzan jokabideak diren neurrian, eta haien larritasun handi edo txikiagoak hezkuntza komunitateko beste kideen eskubideen erabilerari eragindako kaltearen arabera izan beharko du.

Era berean, irizpen horrek ohartarazten du unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen diziplina araubidean ezaugarri bereziak daudela egia izan arren, haiek direla-eta ezin dela saihestu diziplina tipikotasun printzipioari lotuta geratzea, eta har, besteak beste, arauaren kontrako jokabideen deskribapenean ziurtasuna, argitasuna eta sinpletasuna eskatzen dituela, hartzaileek lehenago ulertu eta ezagutzea bermatzen duten baldintzak diren aldetik (64. idatz-zatia).

4. Espedientea izapidetu bitartean, erakunde honen aurrean agertu ziren kexa arrazoiertako bat aztertzerakoan –kanpora begira Musikeneren irudia eta izen ona larriki kaltetzen dituzten jokabideak hutsegite oso larritzat tipifikatzea-, adierazi genuen, gure aburuz, jokabide mota horren gaitzespenak bere lekua izan zezakeela zenbait betebeharrak lotuz gero. Horri dagokionez, eta ikuspegi konparatua zela jakinda, unibertsitateko irakaskuntza mailan kokatzen baita, Unibertsitateko Ikaslearen Estatutua onartzen duen abenduaren 30eko 1791/2010 Errege Dekretuak unibertsitatearen edo haren organoen izena, ikurrak eta ezaugarriak errespetatzea eta behar bezala erabiltzea unibertsitateko ikasleen betebeharrerako bat dela xedatzen duela aipatu genuen.

Hala ere, Aholkularitza Juridikoaren Batzordearen irizpenean jasotako hausnarketak eta oharpenak astiro aintzat hartu ondoren, iradoki genuen Araudiko 10.4 artikulua idazketa birpentsatu behar zela, diziplina hutsegitearen araubidearen eraketa egindako oharbideekin adosago egoteko, eta iradokizun hori Musikeneren ikasleen eskubide eta betebeharren barne araubide osoari zabaldu genion.

Ebazpen honetako aurrekarietan adierazi dugunez, Ikasketen eta Araubide Juridikoaren zuzendariak, Musikeneren patronatuaren idazkaria den aldetik, esan duenez, ez dator bat erakunde honen interpretazio teknikoarekin, eta berretsi du Musikene zentro pribatua dela, baina jarrera hori birpentsarazi digun oinarri gehiagorik eman gabe. Hori dela-eta, espedientea izapidetzeko puntu honetara iritsita, gure esku-hartzea bukatutzat eman eta honako ondorioak ateratzea erabaki dugu:



Ondorioak

1. Musikene musikako goi-mailako zentroa da, goi-mailako irakaskuntza artistiko arautuak ematen ditu eta EAEko administrazio nagusiak bultzatu du, sektore publikoko fundazio pribatu bat sortuz horretarako.
2. Pertsonifikazio forma hori tresna gisa erabiltzeak ez du saihesten Musikene hezkuntza sektorearen araudiari lotuta egotea, haren sorkuntzako estatutuek eurek onartzen dutenez.
3. Sektorearen araudi horren barruan EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko 210/2008 Dekretua sartzen da, haren aplikazio eremua osorik edo zati batean funts publikoek sustengatutako EAEko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikastetxe guztietara zabaltzen baita (1. artikulua), eta halakoa da Musikene, goi-mailako irakaskuntza artistikoa ematen duen sektore publikoko fundazio pribatua den neurrian.
4. Horren ondorioz, Musikeneko ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko barne-arautegiak EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretu horretako xedapenen edukiari egokitu behar du eta, agian, desegokitzat, ikastetxeko elkarbizitzaren aurkakotzat edo harentzako oso kaltegarritzat jotzen diren beste jokabide batzuk sartuz, baina hori ere tipikotasun printzipiotik eta diziplina araubidea zuzendu behar duen xedetik eratorritako eskakizunei buruz egindako oharpenen arabera: ikastetxeetan elkarbizitza zaindu eta bermatzea.

